

OÑATIKO UDALAREN ETA OKKE-OÑATIKO KALE KATU ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA	CONVENIO DE COLABORACION ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE OÑATI Y OKKE-OÑATIKO KALE KATU ELKARTEA
PARTE-HARTZAILEAK	INTERVIENEN
IZARO ELORZA ARREGUI andreak (NAN: 15396342G), Oñatiko Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz (helbidea: Foruen enparantza 1; IFK: P-2006300D), alkate gisa esku hartzen du.	IZARO ELORZA ARREGUI con DNI 15396342G en nombre y representación de Oñatiko Udala, con domicilio en Foruen enparantza 1, y con CIF P-2006300D, interviene en su condición de alcaldesa.
IRENE MORENO VERAMENDI andreak NAN 00831751W, kale-katuei laguntzeko "OKKE-Oñatiko Kale Katu Elkartea" elkartearen izenean eta hura ordezkatzuz (Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta dago elkarte hori, IFK: 00831751W, presidente gisa esku hartu du, eta, ondorioz, elkartearen legezko ordezkari gisa.	IRENE MORENO VERAMENDI, DNI, 00831751W en nombre y representación de la Asociación "OKKE-Oñatiko Kale Katu Elkartea" asociación para ayudar a los gatos callejeros, entidad inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, con CIF 00831751W, interviene en su condición de presidente, y, en consecuencia, como representante legal de la asociación.
AURREKARIAK	ANTECEDENTES
LEHENENGOA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 72. artikuluan, "Toki-korporazioek lagundu egiten dute auzotarren interes orokorren edo arlokoen alde egiten duten elkartearen garapena, beren jarduerari buruzko informaziorik ahalik eta zabalena ematen diete, eta beren ahalbideen baitan, baita herri-baliabideak erabiltzea eta beren jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzetara iristea."	PRIMERO.- En la Ley 7/1985 Reguladora de las bases del Régimen local, artículo 72 "Las Corporaciones locales favorecen el desarrollo de las asociaciones para la defensa de los intereses generales o sectoriales de los vecinos, les facilitará la más amplia información sobre sus actividades y, dentro de su posibilidades, el uso de los medios públicos y el acceso a las ayudas económicas para la realización de sus actividades".
BIGARRENA.- Etxeko animaliak babesteari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen 28. artikuluan "Hiriko felino-koloniak" 1.- Udalak hiriko katu-koloniak kudeatzeaz arduratuko dira; kudeaketa hori animalien CER metodoa aplikatuz egingo da (harrapaketa, antzutzeta, markaketa eta itzulera). 2.- Udalek, ahal dela, metodo hori aplikatzen zaien animalia guztien zainketaz, identifikazio-markaketaz eta eroldaz arduratzen diren pertsona eta elkarteekiko lankidetzat sustatuko dute. 3.- Katu-kolonia kudeatzen duen erakundeak edo elkarteak lankidetzat-hitzarmen bat sinatuko du dagokion udalarekin. 4.- Dagokion administrazio-baimena izan ezik, debekatuta dago herritarrek katu-kolonietako katuak elikatzea. Udalek behar bezala seinaleztatuko dute katu-kolonia kontrolatuak eta babestuak daudela. Halaber, katu-koloniak elikatzeaz arduratzen diren pertsonen dagokien egiaztatzea emango zaie. 5.- Katu jendekinen eta beren kumeen adopzioa sustatuko da, betiere animalien elkarte edo babesleen ikuskaritzapean eta adopzio-kontratuarekin, behar bezala identifikaturik, mikrotxiparen bidez edo kasu bakoitzean dagokionaren bidez, eta AIEOn inskribatuta egonik. Sozializazio-bideraezintasunagatik adoptatu ezin direnak soilik egon beharko dira kolonian".	SEGUNDO.- En la Ley 9/2022 del 30 de junio de 2022 del País Vasco sobre la Protección de los animales domésticos, en el artículo 28 "Colonias felinas urbanas" 1.- Los ayuntamientos serán los responsables de la gestión de colonias felinas urbanas; dicha gestión se realizará a través de la aplicación del método CER -captura, esterilización, marcaje y retorno- de los animales. 2.- Los ayuntamientos promoverán preferentemente la colaboración con las personas y asociaciones encargadas del cuidado, marcado identificativo y censo de todos los animales a los que se les aplique este método. 3.- La entidad o asociación que gestione la colonia felina suscribirá un convenio de colaboración con el ayuntamiento correspondiente. 4.- Salvo la debida autorización administrativa, se prohíbe que la ciudadanía alimente a los gatos de las colonias felinas. Los ayuntamientos señalarán adecuadamente la existencia de las colonias felinas controladas y protegidas. Así mismo, a las personas encargadas de la alimentación de las colonias felinas se les entregará el correspondiente documento acreditativo. 5.- Se promoverá la adopción de aquellos individuos sociables y sus crías, siempre bajo supervisión de asociaciones o protectoras de animales y con contrato de adopción, además de debidamente identificados, mediante microchip o lo que en cada caso corresponda, e inscritos en el

	REGIA. Solo deberán permanecer en la colonia aquellos que no puedan ser adoptados por inviabilidad de socialización."
ADIERAZTEN DUTE	MANIFIESTAN
LEHENENGOA.- Oñatiko Udalak felino-kolonien kudeaketa etikorako programa ezarri zuen, hiriguneetan pertsonen eta katuen arteko bizikidetza hobetzeko –katuak kontrolik gabe ugaritzeak areagotu egiten du arazoa– eta oreka optimo eta bizikidetza egokia lortzeko. Horretarako, CER metodologia erabiliko da (harrapatzea, esterilizatzea eta itzultzea).	PRIMERO.- Oñatiko Udala instauró el programa de gestión ética de colonias felinas para mejorar la convivencia entre personas y gatos en los núcleos urbanos cuya problemática se intensifica cuando el número de gatos crece descontroladamente, y lograr un equilibrio optimo y convivencia satisfactoria utilizando para ello la metodología CER (captura, esterilización y retorno).
BIGARRENA.- Programa hau bideragarria izan dadin, beharrezkoa da katuak kudeatzeko elkarteak eta, oro har, herritarren lankidetzak.	SEGUNDO.- Para la viabilidad de este programa es necesaria la colaboración de asociaciones de gestión de gatos y la ciudadanía en general.
HIRUGARRENA.- OKKE-Oñatiko Kale Katu Elkarteak irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, legez eratuia, eta bere helburu eta xedeen artean du kaleko katuak babestea.	TERCERO.- OKKE-Oñatiko Kale Katu Elkarteak es una asociación sin ánimo de lucro legalmente constituida que tiene entre sus objetivos y finalidades amparar y proteger a los gatos callejeros.
AKORDIOAK-KLAUSULAK-ESTIPULAZIOAK <i>Eta bi alderdiek uste dute komenigarria dela hori guztia LANKIDETZA-HITZARMEN baten bidez antolatzea, honako KLAUSULA hauen bidez:</i>	ACUERDOS-CLAUSULAS-ESTIPULACIONES <i>Y entendiendo ambas partes la conveniencia de articular lo procedente a través de un CONVENIO DE COLABORACION, lo hacen mediante las siguientes CLAUSULAS:</i>
LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA <i>OKKE elkartearekin sinatutako lankidetzak-hitzarmen honen xedea da katu-kolonien kontrola eta jarraipena egitea, felino-kolonien kudeaketa etikorako programan onartutakoaren arabera, eta, horretarako, CER metodologia erabiliko da (harrapatzea, esterilizatzea eta itzultzea). Gainera, felino-kolonien elikaduraz arduratzen diren pertsonen identifikazioa arautzen da, egiaztagiri baten bidez...</i>	PRIMERO.- OBJETO DEL CONVENIO <i>El objeto de este convenio de colaboración con la asociación OKKE es el control y seguimiento de las colonias de gatos, según lo aprobado en el programa de gestión ética de colonias felinas, utilizando para ello la metodología CER (captura, esterilización y retorno). Además se regula la identificación de las personas encargadas de la alimentación de las colonias felinas con un documento acreditativo...</i>
BIGARRENA.- OKKE-REN KONPROMISOAK OKKEk konpromiso hauek hartzen ditu: 1) Katu-kolonia kontrolatuen kudeaketaren antolaketa eta funtzionamenduaren erantzukizuna onartzea, eta ordezkari bat izendatzea hitzarmen honetan aurreikusitako jardueren jarraipena egiteko eta jarduera horiek betetzen direla kontrolatzeko.	SEGUNDO.- COMPROMISOS DE OKKE OKKE se compromete a: 1) Aceptar la responsabilidad en la organización y funcionamiento de la gestión de las colonias controladas de gatos y designar un representante para el seguimiento de las actividades previstas en el presente convenio y para controlar el cumplimiento de las mismas.
2) Felino-kolonien kudeaketa etikorako programan ezarritako irizpideak betetzea, horretarako CER metodologia erabiliz (harrapatzea, esterilizatzea eta itzultzea).	2) Cumplir los criterios establecidos en el programa de gestión ética de colonias felinas, utilizando para ello la metodología CER (captura, esterilización y retorno).
3) CER programa aplikatzea (harrapatzea, esterilizatzea eta itzultzea) a. Harrapaketa: bide publikoan katuak harrapatzen laguntzea, elkarteak kolonia kontrolatzeko egiten dituen jarduketan barruan eta Oñatiko Udalak eskatuta. b. Esterilizazioa: esterilizazioak kontrolatzea eta, ondoren, katuak markatzea. Oñatiko albaitaritzak-kliniketan esterilizatu	3) Aplicar el programa CER (captura, esterilización y retorno) a. Captura: colaborar en la captura de los ejemplares en la vía pública, ya sea dentro de las actuaciones de control de la colonia por parte de la asociación y a petición de Oñatiko Udala. b. Esterilización: llevar el control de las esterilizaciones y posterior marcado de los

eta markatu behar dira katuak. Albaitaritza-zerbitzuak txandaka egingo dituzte MIMAU Albaitaritzak eta ALONAK. Markatzea oso garrantzitsua da, esterilizatutako kideak ondo identifikatu daitezen, eta, horrela, beharrik gabe, animaliak berriz tranpeatu ez daitezen (emeei eskuineko belarran egiten zaie marka eta arrei ezkerrekoan). c. Katuak kolonia kontrolatura itzultzea: Katuak kolonia kontrolatuan utzi aurretik, behar bezala identifikatu beharko dira, mikrotxip bidez, eta AIEOn inskribatu.	gatos. Las esterilizaciones y posterior marcado de los gatos se debe realizar en clínicas veterinarias de Oñati. Se alternarán los servicios veterinarios con MIMAU Albaitaritza y ALONÁ. Es importante el marcado para saber concretamente los miembros de la colonia esterilizados, y así evitar que los animales vuelvan a ser trampeados innecesariamente (marcage de oreja derecha en hembras y marcage de oreja izquierda en machos). c. Retorno del gato a la colonia controlada: Antes de entregar los gatos a la colonia controlada estos deberán ser debidamente identificados, mediante microchip e inscritos en el REGIA.
4) Bide publikoko katu-kolonien kontrola eramatea (kokagunea, kolonia bakoitzaren arduraduna, kolonia bakoitzeko katuen errolda), eta horren berri ematea Oñatiko Udalarari.	4) Llevar el control de las colonias de gatos en la vía pública, ubicación, responsable de cada colonia, censo de los gatos de cada colonia e informar de ello a Oñatiko Udala.
5) Katuen adopzioa sustatzea. Sozializazioaren bideraezintasunagatik adoptatu ezin direnak soilik egon beharko dira kolonian. Gainerako katuak adopzioan eskaini beharko dira. Adopzio-kontratu bat egin beharko da animaliak babesteko elkarteekin, eta katuak adopzioan eman aurretik, behar bezala identifikatu beharko dira, mikrotxip bidez, eta AIEOn inskribatu.	5) Fomentar la adopción de los gatos. En la colonia solo deberán permanecer aquellos que no puedan ser adoptados por inviabilidad de socialización. El resto de los gatos se deberán de ofrecer en adopción. Se deberá realizar un contrato de adopción con asociaciones protectoras, y antes de entregar los gatos en adopción estos deberán ser debidamente identificados, mediante microchip e inscritos en el REGIA.
6) Katuen koloniak egoki zaintzea, osasungarritasun-baldintzak mantenduz eta aldizkako garbiketak eginez. Jarduera guztiek ahalik eta kalterik txikiena eragingo diete inguruko bizilagunei.	6) Responsabilizarse del mantenimiento y cuidado de las colonias de gatos, en condiciones de salubridad y limpieza periódica. Todas las actividades serán realizadas con el mínimo perjuicio para los vecinos de la zona.
7) Katuak baimendutako elikadura-puntuetan bakarrik elikatzea. Horietatik kanpo dauden katuei ez zaie inoiz jatekorik emango. Janaria janari lehorrarekin eta pentsuarekin baino ez da emango (salbuespen gisa, janari hezea eman ahal izango da harrapaketearako edo medikamentuak emateko), eta betiere zaintzaileak/elikatzaileak gainbegiratura. Bide publikoan ezin izango da utzi janaria katuentzat. Ura, bai, kolonian utzi ahal izango da, katuek nahi dutenean edan dezaten.	7) Alimentar a los gatos solo en los puntos de alimentación autorizados, nunca fuera de estas, aunque se observe la presencia de gatos. La alimentación se realizará exclusivamente con comida seca y pienso (como excepción se podrá administrar comida húmeda para capturas o para administrar medicamentos), y siempre bajo supervisión del cuidador/alimentador. No se podrá dejar comida en la vía pública a libre disposición de los gatos. El agua si se podrá dejar en la colonia libre disposición de los gatos.
8) Udaltzaingoarekin eta garbiketa-zerbitzuarekin elkarlanean aritzea galdutako edo abandonatutako animaliak jasotzeko.	8) Colaborar en la recogida de los animales extraviados o abandonados con la policía municipal así como el servicio de limpieza.
9) Zerbitzuak behar bezala gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea.	9) Aportar los medios materiales y humanos necesarios para la correcta ejecución de los servicios.
10) Kideak prestatzea, informatzea eta orientatzea, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten,	10) Formar, informar y orientar a sus miembros para poder ejercitar sus funciones correctamente,

felino-kolonien kudeaketa etikorako programan ezarritako irizpideak betez.	cumpliendo los criterios establecidos en el programa de gestión ética de las colonias felinas.
11) Katuen zaintza- eta elikadura-lanak egingo dituzten boluntarioen zerrenda egin eta udalari jakinaraztea, eta boluntarioei dagokion egiaztagiria banatzea. Datuak babesteari buruzko araudia betetzeko (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, eta 994/1999 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, Datu pertsonalak dituzten fitxategi baimenduen segurtasun-neurrien erregelamendua onartzen duena), elkarteak araudi horretan ezarritako betebeharrak beteko ditu, eta, bereziki, interesdunari jakinaraziko dio, idatziz eta behar bezain argi, bildutako datuak Oñatiko Udalari jakinaraziko zaizkiola, hitzarmen honetan ezarritako helburuarekin.	11) Identificar y comunicar al ayuntamiento el listado de las personas voluntarias que llevarán a cabo las labores de cuidado y alimentación de los gatos, y repartir entre ellas el correspondiente documento acreditativo. Al objeto del cumplimiento de la Normativa en materia de Protección de Datos (Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de Datos de carácter personal y R.D. 994/1999 de 11 de junio por el que se aprueba el Reglamento de Medidas de Seguridad de los ficheros autorizados que contengan datos de carácter personal), la Asociación cumplirá con las obligaciones establecidas en dicha normativa y, especialmente, informará al voluntario por escrito y con la suficiente claridad al interesado que los datos recabados serán comunicados a Oñatiko Udalara con la finalidad establecida en el presente convenio.
12) Laguntzaileentzako erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat eta kalteen aseguru bat kontratatzea.	12) Contratar una póliza de seguro de responsabilidad civil y otra de daños para sus colaboradores.
13) Jarduketan eta jardueren urteko memoria egitea. Katu bakoitzak bere fitxa izango du, eta bertan azalduko dira egin zaizkion tratamenduak.	13) Elaborar una memoria anual de las actuaciones y actividades realizadas, con una ficha por cada gato en el que se haya realizado una actuación.
HIRUGARRENA.- OÑATIKO UDALAREN KONPROMISOAK	TERCERO.- COMPROMISOS DEL AYUNTAMIENTO DE OÑATI
1) Hitzarmen honen arduradun bat izendatzea, jarduketan jarraipena egiten laguntzeko eta hitzarmen hau betetzean sor daitezkeen gorabeherei erantzuteko.	1) Nombrar un responsable del presente convenio a fin de colaborar en el seguimiento de las actuaciones y dar respuesta a las incidencias que pudieran surgir en el cumplimiento de este convenio.
2) OKKEri, aldi baterako, kolonietako babeslekuak eta janlekuak jartzeko espazioak lagatzea.	2) Autorizar a OKKE la cesión temporal de los espacios para la colocación de los refugios y comederos de las colonias.
3) Egiaztagiriak ematea kaleko katuak harrapatu, zaindu eta elikatzen dituzten boluntarioei.	3) Expedir carnets acreditativos para las personas voluntarias que lleven a cabo las labores de captura, cuidado y alimentación de gatos callejeros.
4) Kontrolatutako eta babestutako kolonia felinoak behar bezala seinaleztatzea.	4) Señalizar adecuadamente la existencia de las colonias felinas controladas y protegidas.
6) Urtero diru-ekarpen bat onartzea, OKKE elkarteak hitzarmen honetako gastu eta konpromisoen zati bat ordaindu ahal izan dezan.	6) Aprobar anualmente una aportación económica para que la asociación OKKE pueda sufragar parte de los gastos y compromisos de este convenio.
7) Animalien abandonuak eta tratu txarrak murrizteko kontzientziazio-ekintzak garatzea. Horretarako, hitzarmen honen helburuak argitaratu eta promozionatuko dira tokiko webgunearen eta komunikabideen bidez.	7) Desarrollar acciones de concienciación de la población y de la reducción de abandonos y maltrato a los animales y para ello dará publicidad y promocionará los objetivos del presente convenio a través de su página web y los medios de comunicación local.
LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZA. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikuluan, 22. artikuluan (2.c puntua) eta Oñatiko Udalak emandako diru-laguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera (itunpeko diru-laguntzak), diru-laguntza ematea	CUARTO.- SUBVENCION. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 y el artículo 22 (punto 2.c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre y en el artículo 12 de la Ordenanza General para la gestión de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Oñati

<i>lankidetza-hitzarmen bidez egin daiteke, baldin eta diruz lagundu beharreko ekintzak izaera berezia badu.</i>	<i>(subvenciones concertadas), la concesión de la subvención podrá realizarse mediante convenio de colaboración siempre que la acción subvencionable tenga carácter singular.</i>
1) DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA.	1) IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN.
Oñatiko Udalak konpromisoa hartu du OKKEri ZAZPI MILA EURO (7.000,00 €) emateko, hitzarmenaren indarraldian sortutako gastu eta konpromisoen zati bat ordaintzeko. Diru-atala 5755 eta bere lotespen-maila.	El Ayuntamiento de Oñati se compromete a aportar a OKKE, la cantidad económica de SIETE MIL EUROS (7.000,00€) para sufragar parte de los gastos y compromisos durante la vigencia del convenio. Partida 5755 y grado de vinculación.
2) DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK ETA HORIEN BANAKETA.	2) GASTOS SUBVENCIONABLES Y SU DISTRIBUCION.
1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak: CER metodo etikoaren bidez (harrapatzea, esterilizatzea eta itzultzea) katu-kolonien populazioa kontrolatzeko behar-beharrezkoak direnak, eta kolonietako animalien bizi-eta elikadura-baldintzak hobetzeko direnak. a) CER metodoa ezartzeko gastuak: • Esterilizazioak egiteko gastuak. • Tranpa-kaiolak edo katuak harrapatzeko eta garraiatzeko bestelako materialak erosteko inbertsioa. b) Felino-kolonietako katuen albaitaritzatratamendurako gastuak: • Koloniako katuen parasitoak kentzeko eta txertoak jartzeko gastuak. • Zauritutako edo gaixotutako kolonia felinoetako katuen albaitaritzarretako gastuak. • Hala badagokio, koloniako katuei mikrotxipa ezartzeko gastuak. c) Udalerrian dauden felino-koloniak egokitzeko gastuak: • Koloniarako altzarien eta elikadura-sistemen gastuak. • Koloniak mantentzeko pentsu-gastuak. d) Herritarrak felino-koloniez sensibilizatzeko gastuak: • Herritarrei informazioa ematea, felino-populazioen kudeaketa zabaltzeko eta udal-ingurunean integartzeko kanpainak eginez, edozein formatutan. e) Beste gastu batzuk: • Aseguruak kontratatzea. • Langileen prestakuntza. • Eutanasiak, errausketak.	1. Se entiende por gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y resulten estrictamente necesarios para la consecución del control poblacional de colonias felinas mediante el método ético de captura, esterilización y retorno (CER), y mejora de las condiciones de vida y alimentación de los animales que las componen. a) Gastos dirigidos a la implantación del método CER: • Gastos para realización de esterilizaciones. • Inversión para adquisición de jaulas trampa u otros materiales de captura, y transporte de gatos. b) Gastos destinados al tratamiento veterinario de los individuos de las colonias felinas: • Gastos en desparasitación y vacunación de los individuos de la colonia. • Gastos en atención veterinaria de gatos de colonias felinas heridos o enfermos. • En su caso, gastos en implantación de microchip de los individuos de la colonia. c) Gastos dirigidos al acondicionamiento de las colonias felinas existentes en el municipio: • Gastos en mobiliario y sistemas de alimentación para la colonia. • Gastos en pienso para mantenimiento de las colonias. d) Gastos dirigidos a la sensibilización de la población respecto de las colonias felinas: • Información a la población mediante la realización de campañas en cualquier formato dirigidas a difundir la gestión de poblaciones felinas y permitir la integración en el entorno municipal. e) Otros gastos: • Contratación de seguros. • Formación del personal. • Eutanasias, incineraciones.

Edonola ere, dirulaguntzaren % 60, gutxienez, animaliak esterilizatzeko izango da.	En cualquier caso, como mínimo el 60 % de la subvención deberá estar destinada a gastos de esterilización de animales.
--	--

3) DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA. Dirulaguntza honela ordainduko da: - % 60 aurrerakinaren bidez, erakundeak Oñatiko Udalaren erregistro orokorrean eskaera egin eta hitzarmena sinatu ondoren. - Gainerako % 40a, berriz, elkarteak dirulaguntzaren justifikazioa azaroaren 15a baino lehen aurkeztu ondoren ordainduko da.	3) FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN. El pago de la subvención se efectuará de la siguiente forma: - 60% mediante anticipo, previa solicitud de la entidad en el registro general de Oñatiko Udala y una vez firmado el convenio. - 40% restante se pagará una vez que la asociación presente la justificación de la subvención antes del 15 de noviembre y previa solicitud de la misma.
4) DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA. Azaroaren 15a baino lehen nahitaez, eta erakundeari emandako dirulaguntza justifikatzeko, honako hauek aurkeztu beharko dira: a) Onuradunak sinatutako eskabidea, Oñatiko Udalari zuzendua, dirulaguntza bete dela egiaztatzen duena. b) Jarduera osoaren balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak). Gainera, dokumentu horrek atal bat izango du, eta bertan adieraziko da zer dirulaguntza publiko edo pribatu eskatu edo lortu den. c) Diruz lagundutako gastuen zerrenda zehatza eta horien egiaztagirak. Gastuaren frogagiriak fakturak eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuak izango dira, eta baliozkoak izango dira merkataritzako trafiko juridikoan, edo eraginkortasun administratiboa izango dute, betiere diruz lagundutako jarduera egitearen ondoriozko gastuei eta diru-sarrerei badagozkie. Baliozkoa ez den faktura edo dokumentu oro ez da kontuan hartuko jasotako dirulaguntza justifikatzeko orduan. d) Ekitaldian zehar egindako jardueraren memoria, gutxienez atal hauek izango dituena: • Katuetan egindako jarduketak (artatutako katu zaurituak, esterilizatuak, erraustuak, adopzioan emandakoak) • Fitxa bat, jarduketa bat egin den katu bakoitzeko (animaliaren datuak, bereziki egindako esterilizazioak, katu bakoitzaren jatorria, adopzioak) • Baimendutako kolonia bakoitzaren egoerari buruzko informazio eguneratua: errolda, animalia esterilizatuen kopurua, esterilizatu gabeen kopurua.	4) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN. Obligatoriamente antes del 15 de noviembre y para justificar la subvención otorgada a la entidad, se deberá presentar: a) Instancia suscrita por la beneficiaria dirigida a Oñatiko Udala justificando el cumplimiento de la subvención. b) Balance económico (gastos e ingresos) de toda la actividad. Además este documento deberá incluir un apartado donde se indique la petición y/u obtención de cualquier subvención pública o privada obtenida. c) Relación detallada de los gastos subvencionados y justificantes de los mismos. Los justificantes de gasto serán facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente, con validez en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa, que correspondan a los gastos e ingresos derivados de la realización de la actividad subvencionada. Toda factura o documento no valido no se tomará en cuenta a la hora de justificar la subvención percibida. d) Memoria de la actividad realizada durante el ejercicio, que al menos contendrá los siguientes apartados. • Actuaciones sobre gatos totales realizadas (gatos heridos atendidos, esterilizados, incinerados, dados en adopción) • Ficha por cada gato en el que se haya realizado una actuación (datos del animal, con especial detalle de las esterilizaciones realizadas, origen de cada gato, adopciones) • Información actualizada sobre el estado de cada una de las colonias autorizadas, censo, número de animales esterilizados, no esterilizados.
5) DIRULAGUNTZA ITZULTZEA	5) REINTEGRO SUBVENCION

OKKEk funtsak itzuli beharko ditu, baldin eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eta, betiere, dirulaguntzen arloan indarrean dagoen legerian araututako kasuetan.	Se establece la obligación por parte de OKKE de reintegrar los fondos en el supuesto de incumplimiento de los requisitos establecidos para la concesión y, en todo caso los supuestos regulados en la legislación vigente en materia de subvenciones.
SEIGARRENA.- BESTE DIRULAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA	SEXTO.- COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES
Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten beste dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, adierazitako dirulaguntzaren araudi erregulatzailean azaldutakoa aldatu gabe. Hala ere, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berez, ez beste laguntza, diru-sarrera edo baliabide bati gehituta. Gainera, OKKE elkarteak edozein dirulaguntza publiko edo pribatu eskatu edo lortu duela jakinarazi beharko du.	Esta subvención será compatible con otras subvenciones, ingresos o recursos que tenga el mismo objetivo, sin alterar lo expuesto en la normativa reguladora de la subvención indicada. Sin embargo, la cantidad de la subvención aportada no podrá de ninguna manera superar el coste de la actividad subvencionada, ni en sí misma, ni sumada a otra ayuda, ingreso o recurso. Además la asociación OKKE deberá comunicar la petición y/u obtención de cualquier subvención pública o privado obtenida.
ZAIZGARRENA.- DESEGITEA ETA ALDATZEA.	SÉPTIMO. - RESCISIÓN Y MODIFICACIÓN.
Alderdiek edozein unetan sala edo alda dezakete hitzarmen hau, ados jarrita. Hitzarmen honetako estipulazioak urratuz gero, alderdi kaltetuak aukera izango du betetzea edo suntsiaraztea eskatzeko.	Las partes pueden denunciar o modificar este convenio en cualquier momento por mutuo acuerdo. Cualquier transgresión de las estipulaciones de este convenio permitirá a la parte perjudicada optar por exigir el cumplimiento o la resolución.
ZORTZIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.	OCTAVO. - VIGENCIA DEL CONVENIO.
Hitzarmen honek URTEBETEKO indarraldia izango du, hitzarmena sinatzen denetik hasita. Beste urtebetez luza daiteke, indarrean dauden legezko xedapenen arabera.	Este convenio tendrá la vigencia de UN AÑO desde la firma del convenio, prorrogable un año más conforme a las disposiciones legales vigentes.

Eta ados daudela adierazteko, dokumentu hau sinatu dute.

Y, en prueba de conformidad, firman el presente documento.

Oñatiko Udala

OKKE-Oñatiko Kale Katu Elkarte

Izaro Elorza Arregui

Irene Moreno Veramendi



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	OKKE hitzarmena
CSV/EKS:	SINAce81527-d1c5-486a-bbb4-6176af886b52